

Zinuema proiektuak aurrera jarraitzen dau Igorren

12. orrialdea

Zeanuriko bertso-saioa hilaren 29an izango da

Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Aitor Mendiluze izango dira Zeanuriko bertso-saioko aurtengo bertsolariak. 18:00etan izango da frontoian eta gai-emoile beharretan Eñaut Intxaurragak jardungo dau. **13. orrialdea**



Nork hil zuen egiazki Blasida Pujana? liburuaren aurkezpena

13. orrialdea

Euskerearen etorkizunari baikor begiratzen deutso Xabier Arauzok

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Zuzendaria, Arratian euskereagazko atxikimendu handia dagoala uste dau eta, orokorrean, hori handituz joango dala. Sare sozialak, enpresa mundua eta kirola euskaldundu behar dira eta horretan dagoala beharrezkoa Bizkaiko Foru Aldundia azaldu deutso BEGITU emondako alkarrizketa baten. Euskerea sustatzeko lan egiten dabena alkarteak hartu-emon handia daukela Aldundiak eta 2023an, 3,8 milioi euro bideratuko dabazala alkarte horreetara adierazto dau. **8. eta 9. orrialdeak**



Manasluko tontorra zapaldu dau Txikonek



Urtailaren 7an izan zan. 60 ordu baino gitxiago behar izan eben Alex Txikonek eta bere kideek tontorrera igon eta Beheko Kanpamentura bueltetako. Hirugarren saioan lortu dau Txikonek Manasluren (8.163 metro) tontorra neguan zapaldutea. **11. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eingo eskoleak Neguko jaia ospatuko dau Diman

Hilaren 28an izango da, Artaunen. Bertan, Eingo eskolako irakasle, ikasle eta lagunak batuko dira, alkarregaz bazkaldu eta musikea eta jantzakaz gozatuteko. Kantu eta jantza poteoak, argazkiak, baba janak eta bazkalosteko kantua eta jantzek osotuten dabe egitaraua. **6. orrialdea**

EKIN eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- URSAREAK
- SANEAMENTSAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)

eraiketak@construccioneseekin.com

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Atzeratu egin da garraio astuneko bidesaria ordaindu behar izatea

Bizkaiko Batzar Nagusiek igazko garagarrean onartu eben garraio astuneko Arratian N-240 erabilteagaitik bidesaria ordaindu behar ebela. Kanoa be onartu zan. Neurria 2023ko urtailaren 1ean indarrean sartzeakoa zan baina atzeratu egin dabe. Garraioaren sektorea eta Bizkaiko Foru Aldundia negoziatzen dabiz BEGITUEN iturrien arabera. **5. orrialdea**



UBIDE

Memoria ibilbideak seinalizau dauz Ubidek

1936ko altxamentu militarren ondoren, gerrako frontea Arabako iparraldean ezarri zan eta Ubide frontearen lehen lerroan geratu zan. Hori dala-ta, hainbat leku dagoz Ubiden gerrari lotutakoak, "Gorrien bidea" edo Aretxagako txaleta, barbarako. Gorrien bidea, Oketa mendira doan ibilbide zirkularra da Eusko Jaurlaritzek gerran eregi arazo ebana.

Frontea izanda hildako eta kartzeleratutako asko egon ziran Ubiden. Honeek ezetuten emoteko panelak ipini ditu Udalak, memoria gordeteko eta altxamentu militarra sufridu ebenen duintasuna eta oroimena berreskuratzeko. **7. orrialdea**

ZEURE BERBEA

"Oin dekogu Arratie aldatuteko aukera" dinamikea

Urtilak 14 honetan "Oin dekogu Arratie aldatuteko aukera" dinamikea aurkeztu dogu Igorreko Kiñu Gaztetxean. Ernaiko "Ora in dugu aukera" dinamikearen barruan kokatzen dogu, baina Arratiako irakurketa eta lanketa propioak eukiko dauz erdigunean. Besteak beste, eskualdean bizitzaren garestitzeagaz, lanagaz, etxebizitzagaz eta hezkuntzagaz bizi doguzan problematikak landuko doguz.

Belaunaldi krisiek zeharkatuta bizi gara Euskal Herriko gazteak: bizi baldintzen prekarizazioa, bizitzaren garestitzea, hezkuntzaren merkantilizazioa... Egoera honen aurrean, bizi proiektu eraldatzailerak bultzatu eta gazteon poderea eskuratutea da gure hautua. Gazte bizitza duinak bermatuko dituen proposamenak bururatuetea jagoku guri.

Arratiako gazteen kasua be bardin-antzekoa dala ikusi ahal dogu. Lanasku merkea gara eta lan prekarioetan ibiltzen gara gehienetan, asko eta asko kontratu bako lanaldiak diralarik.

Etxebizitzeari jagokonez, alokairuen prezio altua, alternatiba habitazionalik eza eta etxebizitza hutsak dira nagusi bailaran. Jaubetza pribaduen jente-arte

da kapitalismoa eta Arratian honen emanzipetako aukerarik eza ekarri ohi deusku gazteoi.

Oinarrizko produktuen prezioek be gora egin dabe nabarmen. Gero eta gehiago balio deusku asteko erosketak egiten joateak gure herriko supermerkaduetara. Negu honetan, gainera, energiaren prezioaren igoerea dala-ta, etxean kalefazioa izetu ezin daben gazte eta familien kopurua nabarmen igoen da.

Hezkuntzeagaz, bailaran kokatzen ez diran goi mailako zentro eta unibersidadeetako ikasketak aitatu gura doguz. Garraioa, testu-liburu eta matrikula gastuak ordainduteaz gain, askotan ikasle pisuak be ordaindu behar izaten doguz. Gainera, praktikaldietan orduak eta orduak sartu ohi doguz enpresentzat beharrez, ordaindu bako beharrez.

Honeri guztioneri buelta emoteko, proposamen politiko barriak behar doguz. Euskal Herri sozialistea eta feministea behar dogu, eta honen bidetik, Arratia barri bat behar dogu. Gure herrietan baldintza onetan behar egingo dan Arratia bat. Etxebizitza eskubidea bermatuko dan Arratia bat. Arratian bizi, lan eta ikasi ahal izingo dan Arratia bat. Honetarako burrukan eta antolatuten segiduko dogu datorren hileetan. Oin dekogu aukera-ta, Arratie aldatuteko!

ARRATIAKO ERNAI

ERETXIA

Neurri itogarria

Mundua pandemizau zantetik bizi doguzan askatsun eta eskubide urraketen artean, arpegiaren heren bi estaltzera behartuta gagozan tela zatiari eskaini gura deusat tartea. Maskara deitzean deusie batzuek, mosukoa beste hainbatek, eta mozala gutariko askok. Jantzkeraren derrigorrezko osagarri bihurtu da batetik bestera ibili ahal izateko, ezinbestean, autobus, tren edo bestelakorik hartu behar dauanarentzat.

Eguneroko unerik desatseginena bihurtu jata trenera igoen eta bagoiak espresinorik bako arpegiak okupau dituela ikustea. Jesarri eta ingurura begiratzen etorten jatan lehen irudia, nor bere maskara barruan hartu eta botatuko arnasa behin eta barriro inhalatzen izaten da; mustur inguruko bakterio eta patogenoen haztegi hezea eten barik barnertzen; oxigeno urritasunak eta karbono-dioxidoaren anestesiapean egindako joan-etorriek epe luzera sortu daikien lozorro kognitiboaz inor gitxi jaubetu dalarik. Adituei irakurritak dakit mosukoaren gehiegizko erabilereak, gerora, buruko minak, zorabioak, konzentretako arazoak eta erreakzino-denporearen atzerapena dakarjala, sintoma horreek hondatze kognitiboaren ondorio izanik. Arazoa da burmuinaren endekapen prozesuak areagotu egiten dirala, oxigeno faltea gero eta handiagoa dan neurrian. Atera kontuak, egunean eta hiru urtez, gitxienez, bidaia bi egin behar dauanaren kasuan. Zer esanik ez, aho estalkia jarrita, lanaldi osoa bete behar dauanarentzat.

Modu berean, sendatzeko asmotan ospital eta egoitzetan dagozanen kasura etorrita, paradoxikoa egiten jata gaixo dagozanak be arnas hartzea eragozten deusien maskarea erabiltera behartuta egotea, bizi-iraupenerako ezinbesteko baldintza arnastea danean. Ulergaitza farmazia eta optiketan jantzi behar izatea, eta ez bestelako dendetan. Zentzubakoa zergaitik herrialde batzuetako he-



YOLANDA AZKUENAGA

Irakaslea

galdietan mozal barik bidaiatu daitekean eta gurean ez, edo zein dan garraibideetan mosukoa erabili behar izatearen errazoa, eta ez jentetzea biltzean dan bestelako lekuetan. Asko dira oin arte erantzunik izan ez daben galdarak. Eskertuko neuke norbaitek zalantza honeek argitzen dituan errazoi koherenterik emongo baleust. Kontua da, oin dala hiru urtetik hona hartu diran ebatzi eta neurri itogarriek ez dabela osasunagaz zerikusirik, kontrolagaz baino; eta ez dituela osasun arloko adituek hartu, gutaz horrenbeste kezkatzen diran agintariek baino. Beste era batera esanda, osasun neurri izenez ezetuten doguzanak, neurri politikoak izan dira hasikeratik, goian aiatutakoez gain, alde emozionalean inpaktu handia izan dabenak, eta maila sozialean alkarren arteko banaketara eroan gaituenak.

Ha-ta guzti be, atzen urte honetan herritarrok galdu dogun askatasuna, subirotasuna eta ahalduntzea egiten jataz benetan kezkarri. Tristura eta amorraren arteko zeozer eragiten deusta hain ikasia dogun portaera otzan eta esanekoak. Ondo irakatsita gagoz zelan agertu behar garan kanpora begira, besteak konplazidu guran geure burua traizionau, kaltetu eta pentsamentua isildu behar badogu be. Aho estalkiaren onartzea, giza degradaziora zelan heldu garan adierazoten dauan zertzelada bat besterik ez da, zenbaiteraino gitxiesten dogun geure burua. Dana dala, gizatasun identidatea ezabatzea garoazan mozala baino, ikusi gura ez doguzan bestelako ondorio askoz be larriagoak dagoz jokoan, nahiz eta tematuta gagozan beste aldera begiratzen. Gertatzen dagoanaren aurrean begiak zabaldu eta erantzuten ez dauan gizateria, galbidera kondemata dagoan humanidatea da.

George Orwellen esaldi batek dino adierazpen askatasuna besteek entzun gura ez dabena adierazotea dala. Beharbada, heldu jaku era guztietako maskarak erortzeaz dagozan ueña, eta horregaz batera, barruko korapiloak askatzekoa, ahotsarena barne. Hala bedi.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGUTUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XVII). Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

Gabonak pasau ondoren dietea egin beharko _____ (dogu)

Betekadatxo ederrak hartu _____ (doguz)

Konsumidu be makinatxo bat egiten _____ (da) Gabonetan

Datorren urtean konzienteago izaten ahaleginduko _____ (naz)



LUMATUTEN

AITOR BARRENETXEA
ZULUAGAIsiltzen ez dan
(ume) totela

Txiki-txikitatik entzun izan ditu etxeko txikiak, bigarren mutikotxoak, "nire dandy"ak, totela, tartamudoa, tartaja, metralleta... lango berba gozoak, laztan berbak. Kar kar kar. Izan be, umeak, batzuetan, oso gaiztoak, maltzurak, krudelak... izaten gara.

Umearen egunerokotasunean oso txertatuta, zuztarretaraino errotuta egozan adjetibo negatibo honeek guztiak; batez be aurrenerabearoan, eta oindino gehiago, adoleszentzian.

Ha-ta guzti be, oso zoriontsua zan bera, *un cascabel, saluda hasta a las moscas* esaten eben bere inguruko guztiek.

Gurasoengandik jasotako gainbabesak agian eta, konturatu bako eta minik egin gura bako ondo berba egiteko presino horrek, bere buruagazko autoexigentzia horrek, markau eta baldintzatu dau gure ume totela bizitza osoan. Halako isiltasuna bere barruan,

iluna bezain bakartia. Zenbat berba, idea, zenbat tontakeria, astakeria, zenbat umekeria esan barik itxi dodazanak, besteakaz konpartidu barik eta komunikau barik, lagun eta ezagunen barre eta txutumutxuen bildurragaitik. Berari, ordea bost ardura jakon, berak umore onez hartzean ebazan burlak eta bera be ez zan santua, ez zan atzean geratzen zan horreetakoa.

Eskolan, andereñoak ea nork irakurri gura eban galdetzean, totelak beti altxatzen eban eskua poz-pozik!

-Nik, nik ande-de-de-de-reño totelka berba eginda, aurreko eta atzeko beste umeen barreak eraginaz.

Bardin jakoz barreak, berak irakurri gura dau eta aurre egiten deutse zailtasun eta bildurrei, ez da kikiltzen, hori inoz be ez!

Jakin badaki, zergaitia edo errazoi errazional-zientifikoa oindino jakin ez arren, irakurtean, ez dala trabauko, ez dauala totelka irakurriko eta kantu melodiko bat lez urtengo jakozala berbak. Lagun eta irakasle guztiak txundituta, guztiz harrিতuta, aho zabalik itxiz; izorra hadi, mihingaina zulora!

Egun, ume harek 10 urte baino gehiago daroaz irakasle lanetan eta ikasle eta lankide askok, jakin be ez dakie totela danik, bera ez dalako. Batzuetan totelka egiten dau berba, bai, (eta nork ez dau totelka berba egin inoz, nor ez da trabau inoz?) eta zer?

Gozo-gozo, nasai-nasai, berobero, gori-gori egiten dau berba...

Isiltzen ez dan (ume) totela da-ta! ...eta harro dago, oso!

ZERTZEAN

EÑAUT
INTXAURRAGA

Gaia jarrita: "Futbola"

1

Futbola kritikatzeari modan dagoen honetan ausartuko naz sakontzen bere alde ederretan pozaren hormonak martxan jarten dauz gure zainetan zoriontsu egin ahal gaitu momenturik grisenetan ilusio sortzaile da ta jarten gaitu amesetan lotura eragile da zelaietan, tabernetan gozarazle da zahartzaro gaztaroan zein umetan onura psikologiko ugari daukaz benetan.

2

Pozaren sinonimotzat jo izan dogu askok sarri kuadrilla asko ta askoren atseginaren uztaari egunerokotasunen deskonexio oinarri burua hausten ez dauan zaletasun zoragarri besarkada eragile poz-malkoen bizigarri endorfinen askatzaile eta bihotzaltzagarri dantzan jarten deuskuzanez oin, beso eta eztaari futbolaren alde harro egin dagigun aldarri.

3

Futbola funtsean dogu fenomeno emozionala ta badakit bere alde iluna be badaukala kontrako balaz bildu lei egundoko arsenalak hortarako badagonez argumentario zabala badakit dana ez da argi baina dana ez da itzala futbolzaleak garenok ez gara jente azala antifutbol orok beraz hau ere jakin daiala futbola jolas bat baino askozaz gehiago dala.

Doinua: Habanera

BEGI TXINDORRA

Pentsetan dot bizikleteru klase bi dagozala: bizikletea aisialdian eta kirola egiteko erabilten dabena, eta bizikletea ibilgailu moduan erabilten dogunak. Eta teorian, gauza biak osagarriak izan daitekezan arren, Arratian behintzat, baterako edo besterako erabilten dogula bizikletea esango neuke. Izan be, gatx egiten jaku bietarako erabiltea; garuneko espazio desbardinak hartuko balebe lez.

Nik Arratiatik mobiduteko erabilten dot bizikletea, eta udan bidaiatxoren bat egiteko be bai. Oporretatik bueltan, bidaiaren ostean geratu jatan gorputz giharratsua ikusita, pentsau izan dot kirol errutinan sartzea bizikletea. Baina ez dot lortu. Bizikletan ibiltzen disfrutau arren, niretzat ibilgailua da; herri batetik bestera joateko eta gauzak garraiatzeko balio deustan ibilgailua. Eta autonomia handia emoten deustana.

Seguru asko, bizikletea kirolerako erabilten dabenek be, behin baino gehiagotan pentsau dabe Arratiatik mobiduteko ibilgailu aproposa dala. Baina nago, ezin izan dabela kotxea ordezkatu eta jarraituten dabela kotxea erabilten Arratia barruko desplazamentuetarako.

Ondo dago holan. Funtzino bat betetea nahikoa da. Ze danerako danean gauza bat, menpekotasuna sortu leike.



Gorosti
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosticl.com

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkoitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonak, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
Ingenieria
Marina Urquiza Aldekoa
Odontologia

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1, beheko
48140 Igome - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hiltegietako Zerbitzuak: 900
R.P.S. 35/96

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bizkaiko makroproiektuen inguruko jardunaldia antolatu dau Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak Igorren

Erredakzioa


Urtailaren 21ean izango da, zapatua, goizeko 10:00etan hasi eta 13:00ak aldera arte Igorreko Lasarte Aretuan.

Jardunaldiaren helburua, Bizkaian martxan dagozan makroproiektu energetikoak, elektrikoak zein eolikoak, jakitera emotea da. Horretarako Bizkaian dagozan hainbat kolektibo egongo dira, euren eskualdeetan dagozan makroproiektuak azalduko; Gatikako Interkonexio Elektrikorik Ez!, Aiaraldeko Mendiak Bizirik, Enkarterri bizirik!, AHT gelditu-Basauri eta Autopista Elektrikorik Ez!-Makatzak dira eurretako batzuk. Araba Bizirik Plataformakoak eta Alvaro Campos EHUko ener-

gien departamentukoak be egotekoak dira eta euren burrukak kontauko ditue. Alternatibak badagozala sinistuta, beste eredu bat eskaintzen dituenak be izango dabe zeresana jardunaldian.

Antolatzea beharrezkoa

Makroproiektu bako energia eredu barri bat ezartzeko, antolatu-tea ezinbestekotzat jotzen dabe Makatzak taldekoek. "Arabian, Gipuzkoan eta Nafarroan antolatuta dabiz, baina Bizkaian bakotxa gure aldetik gabiz, ekintzetan alkartzen garan arren. Beraz gure helburua be izango litzateke plataforma bat sortzea Bizkaian, indartsuak izateko eta alkarrerri babesa emoteko" azaldu deutso BEGITURI Arantza Iurrettagoiena Makatzak taldekoak.



DIMA

Hilean behin kultur ekintzak antolatuko ditu Dimetaleroak Kultur Elkarteak

Erredakzioa

Urrietan izaten dan Dimetal jaiaz gainera, herrian musikea eta kultura bultzatu eta gazte jentea batu gura dau Dimetaleroak kultur alkarte barriztauak. Hori dalata, urtailetik maiatzera eta urri lehenengotik abendura arte, hileko atzen barikuan, kultur ekintzak egingo ditue Diman.

Eurretako lehenengoa, urtailaren 27an izango da. Jaia, 18:30ean hasiko da pintxo-poteagaz eta dj Gaztxeren musikeagaz. 22:00etatik aurrera, Penny Fleck eta Arratians taldeek kontzertua emongo dabe Abaroa aretoan. Penny Fleck, rock musikea egiten duan Durango eta Otxandioko

taldea da. Arratians taldeak barriz, reggae musikea egiten dau eta lehengo MG taldeko kideak dira talde arratiarrean jotzen dabenak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Atzeratu egin da garraio astunek N-240 errepidea erabilteagaitik ordaindutea

Bizkaiko Batzar Nagusiek, garagarriaren 20ko 7/2022 Foru Arauan, garraio astunek, 2023ko urtailaren 1etik aurrera, N-240 eta BI-625 errepideak erabilteagaitik ordaindu egin beharko ebela onartu eben. Tarifak eta deskontuak be onartu ziran gero, eta hori gauzatu ahal izateko, *free flow* motako bederatz arku ipini dabez Arratian.

Erredakzioa

Urteko lehenengo egunetan aktibau barik egozan arkuok; izan be, BEGITUREN iturrien arabera, garraioaren sektorea eta Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) lehen onartutako tarifak eta deskontuak negoziatzen dabiz.

Urgoiti-El Gallo lotunearen (55 KP) eta Ubidea (23 KP) artean *free flow* motako 9 arku aktibauko dira. Kontrol gune honeetatik igarotzean, beheko koardruan dagozan tarifak aktibauko zirala onartu zan 2022an.

Urrietan jakinarazo eban BFAk kanonaren zenbatekoa. "Bizkaiko Foru Aldundiak hilabeteak daroaz errepide bidezko salgaien garraioaren sektoreagaz berba egiten eta daborduko ezarri dau erabilerearen ordainketa indarrean sartuko dan lehenengo errepide bien kanonaren zenbatekoa. Kasu bietan Europak baimendutako gehieneko kanona baino txikiagoa ezartzea ebatzi da eta, neurri horregaz batera, deskontuak aplikauko dira bai erabilera-maiztasunari jagokonez, bai ibilgailu eraginkorrenei jagokienez" azaldu eban BFAk urri bigarrenaren 14an.

Holan, %13ko deskontua ezartzea ebatzi zan N-240 Tarragona-Bilbo (Barazar) noranzko bakarrean hilabete naturalean 20 bidaiak edo gehiago egiten daben ibilgailuentzat, hain zuzen be Urgoiti-El Gallo lotunetik Ubideko saihesbideraino edo kontrol guneetako pasabideen baliokidetasuna, beti be identifiketako eta ordaindutako gailu telematiko (OBE) beraren bidez ordaindu ezkeru.

Motor mota eta emisino mailaren arabera be, beste deskontu batzuk be onartu ziran: %25eko deskontuak ibilgailu astun elektriko, hibrido eta gas bidez propulsatuentzat, DGTren sailkapeneko "O" eta "ECO" etiketea daukien ibilgailuak; %20ko deskontuak "EURO 6" ibilgailu astunentzat eta %15eko deskontuak "EURO 5" ibilgailu astunentzat, hain zuzen be.

Arratiako ekonomian eragina
EAJ-PNVkoentzat bidesariak abantaila asko dakar. Alde batetik,



Arratiatik pasetan dan kamioi kupurua gitxituko da, zaratea, kutsadura eta istripuak gitxituz, besteak beste. Gainera, bidesarion dirua garraio azpiegiturak hobetuteko erabili daiteke. Batzar Nagusietan onartu zan hau, 2022ko garagarriaren 20an, EAJ eta PSERen aldeko botoakaz, PPren aurkakoakaz eta EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaiaeren abstentzioagaz.

Baina Arratiako kamioilariak eta beste hainbat enpresek ez dabe begi onez ikusten neurri hau Arratiako ekonomiaren kontra doalakoan. "Arratiarrontzako zerga bat da. Egia da Arratiatik pasetan diran kamioi asko ez dirala pasauko, autopistatik merkeago urtengo jakielako, baina Arratian bizi garan kamioilariak eta bertan enpresa bat daukagunok, kamioiak enpresea daukagun lekura joateagaitik pagau egin beharko dogu" azaldu deutso BEGITURI Oskar Gorostiaga Igorreko Industrialdean egoitza daukan Ekin eraiketarako enpresakoak. Bere kalkuluen arabera, bidesariak urtean 12.000-15.000 euroko kostua ekarriko leuskio bere enpreseari; eta, enpresea beste leku baten, Zorrontzan esaterako, egon ezkeru, diru hori ez leuke ordainduko. Gainera gastu horreek ezin dira

danak prezioetara pasau, konpetitibitatea galtzea dakarrelako. Eta oin, "nork erosiko dau pabilo bat Arratiako industrialde baten?" dino Gorostiagak.

Autonomoen gastuak be handituko ditu bidesariak. "Kamioilari ibiltzen dan autonomo asko dago Arratian. Horreek, lana N-240tik pasau barik egiten badabe be, lana amaitutakoan etxera joatea kamioagaz 3.000-4.000 euro kostau ahal jakie" gehitu dau. Arratiako dendetako produktuak be garestitu ahal dira.

Gizarte eragileak

AskeBizi Arratien taldea be bidesariaren kontra agertu da. "Aldundiak bailaran bidesariak ipini gura ditu. Badirudi oin garraiolarientzat baino ez dirala, baina hori onartzen badogu, gero ibilgailu guztiei ipini ahal izango deutsee" dinoe. "Neurri horrek, gainera, inguruko herrien joan-etorria murritzea ekarriko dau; izan be, garraioek, ordezko bide bat hartuko dabe, eta horrek galerea ekarriko deutse inguruko enpresa eta negozioiei (dendak, jatetxeak, gasolindegia eta abar). Ondorioz, herri eta bertako biztanleen eros-teko ahalmenari eta etorkizunari eragingo deutse".

Kontrol gunea	Astunak I	Astunak II
Barazar	5,78	8,93
Zeanuri	0,65	1,02
Areatza	1,21	1,90
Arantzazu	0,87	1,36
Igorre hegoaldea	0,69	0,78
Igorre iparraldea	0,32	0,37
Apario	0,61	0,69
Bedia	1,61	1,81
Usansolo	0,43	0,48

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Neguko jaia ospatuko dau Eingo eskoleak Diman urtailaren 28an

Eingo eskolako irakasle, ikasle eta lagunak Diman batuko dira urtailaren 28an, neguko jaia ospatuteko baba janagaz. 11:30ean daukie zitea plazan, kantu eta jantza poteoari ekiteko. Ondoren, batutakoen argazkia egingo dabe. Baba jana 14:00etan egingo dabe Artaungo Azurmendi jatetxean eta ostean kantuek eta jantzak amimauko dabe bazkalostea.

Erredakzioa

Iker Allur Eingo ekimenaren sortzaileak azaldu deusaz BEGITURI jaiaren eta Eingo eskolearen nondik norakoak.

Eingok neguko jaia antolatu dau urtailaren 28an Diman. Eingo eskolako ikasleentzat?

Normalean guk antolatzen doguzan jai, ekimen eta ekintzak Eingo zale guztiei zuzenduta egoten dira.

Lehenengo aldia da neguko jaia egiten dozuela ala gehiagotan be egin dozue?

Pandemia aurretik be Neguko Eingo jaia dalakoa hainbat bider antolatu genduan, beti Dimako Artaun auzoan. Normalean baba jan moduan antolatzen genduan. Eguerdia aurretik Artaunen geratu, urtean zehar jairik jai gugaz ibili izan diranak, ikasleak eta lagunak agurtu, bazkaldu eta bazkalosteko erromeriagaz amaitzen genduzan jaiok.

Neguan bakarrik ala beste urte sasoietan be egiten dozuez holango jaiak?

Urtero, garagarri erdikaldean Udako Eingo jaia antolatzen dogu Tremoian (Gautegiz Arteagan), gure baserrian. Han egun biko plana antolatu izan ohi dogu, bezpera iluntzean hainbat ekintza antolatzen doguz etxeko landetan, jentea arrasti erdirako etorri eta, gabaz alkarregaz afaldu. Gura dabenek akanpetako aukerea be izaten dabe bertan. Hurrengo egunean goizean lagun gehiago etorten dira. Alkarregaz gosalduta ondoren, eguerdi aldera inguruko herrietan kantu eta jantza saio inprobisauak egiten doguz (Kortezubin, Ibarrangelun...). Bazkalterako etxera hurreratzen gara. Alkarregaz bazkaldu eta gero, erromeriak, iluntzera arte segiduten dau.

Jai honeen helburua, urtean zehar gugaz leku batetik bestera dabizanakaz, ikasle eta lagunakaz, detailea izatea da. Alkarregaz egon, berba egin, abestu, jantzan egin, musikea jo... sentidu... gozatu!

Noz sortu zan Eingo eskolea?

Idea aspalditik badator be, Eingo eskolea pandemia sasoiaren sortutako ekimena da. Sistema normalizautik kanpo dago, musika ikasteko moduak beste era batera izan beharko leukiela ulertzen eta sinisten dogulako.

Non dago? Non emoten dira eskolak?

Ama-eskolea Gautegiz Arteagako Tremoia auzoan, gure baserrian dago. Arratian zentro barria zabaldu dogu ikasturte honetan Igorren, Sabino Arana 13an, dagoan lokalean.

Ze musika tresna jotzen ikasten da bertan?

Tradizionozko musikea edo adar tradizionala landuten dogu Eingo eskolan. Trikitixea, perkusinoa, kantua eta jantzea, guztia ikuspegi bateratu batez. Perkusino tradizionala eta gorputz mobimentua oinarritzat hartuta, kantu eta trikitixegaz osotuten doguz ikasketak. Urri lehenengoan 46 ikaslegaz hasi ginan martxan; gaur egun 62 ikasle dagoz Eingo eskolan. Gehienak inguruko herrietakoak dira, baina beste batzuk kanpoztarrak (Katalunia, Asturias, Frantzia, Estatu Batuak).

Zeintzuk dira eskola honen berezitasunak?

Personengan eta batez be nor-

banako bakotxarengan sinisten dogu. Bakotxari behar dauan denporea eskaintzen deusagu arlo bakotxean. Banakako klaseak garrantzi handia dauka, baina talde dinamikeari eta alkarbizitziari garrantzi handiagoa emoten deusagu. Ikasketa prozesuan ikasleakaz rol desbardinak landuten doguz, azken baten kantuan, jantzan, instrumentuak jotzen trebatzen doguz beti be helburuak gozamen propioa eta besteen gozamena bilatzea izanda.

Horretarako astean zehar jasoten dituen klaseez aparte hilean baten Tremoian biltzean gara edadearen arabera bananduta. Barikuan etorri eta zapatu arrastira arte bertan egoten gara taldeko dinamika landuten: erritmika tailerra, perkusino tailerra, trikitixa tailerra...

Eskolea da Eingoren ardatza?

Eingoren oinarria Eingo eskolea bihurtu da azkeneko urteetan. Antolatzen doguzan ekimen, saio, ikastaro eta zera guztiak eskolearen behar eta gogoen arabera izaten dira eta hola izango dira aurrerantzean be. Bertatik sortuko dira Eingo hurrengo urteetan egingo dauan ibilbidearen ideia orokorrak. Eingo mundu txiki bat!

AREATZA

Areatzak Udalak lanpostu bi egonkortzeko prozesua hasi dau

Erredakzioa

Aguazilarena eta brigadako lanpostu bat dira egonkortu beharrekoak. Legeak hola aginduta, lehenengo lehiaketa bidez egingo da eta bigarrena, lehiaketa-opsizinoen bidez.

Izan be, legeak mota bitako egonkortze prozesuak zehaztuten ditu: alde batetik, 2016ko urtailaren 1a baino lehen sortu eta egonkortu barik dagozan lanpostuetan lehiaketa sistema erabiliko da, eta 2016ko urtailaren 1etik 2018ko urtailaren 1era arte sortu edo hutsik geratu eta egonkortu barik dagozanetan, lehiaketa-opsizino sistema erabiliko da. Areatzako aguazilaren plaza 2016a baino lehen sortu

zan; brigadako lanpostua barriz, 2017tik aurrera.

Udalak argitaratu ditu lehiaketa eta lehiaketa-opsizinoaren oinarriak eta aguazilaren plaza 2023an egonkortzea espero da eta brigadako beharginarena 2024an.



ARTEA

Umeentzako liburutegia ipini dau martxan Arteak

Erredakzioa

Oindino liburu askorik egon ez arren, 2 eta 8 urte arteko umeek eta euren familiek erabili daikie daborduko liburutegia Artean. Kultur Etxean dago eta Kultur Etxeko ordutegia dauka. Erabili gura dabenek txartela egin behar dabe udaletxean, sartu eta urteteke. Bertan irakurteko espazioa da, eta ez dago mailegu zerbitzurik. Txikienen artean irakurzaletasuna bultzatzeko, hilean behin ipuin kontalariren bat liburutegira ekarzteko asmoa dauka Udalak.

Helburu horregaz, irakurle txokoak abiatu ebazan Arteko Udalak oin dala urte batzuk. "Gazteen irakurle txokoa ez zan aurrera atera. Hasikeran, bizpahiru gaztek hartu eben parte, baina gero bape ez. Orduan horri bueltaka, pentsau genduan txikitatik hasi behar zala irakurzaletasuna suspertzen, eta pentsau genduan liburutegia apur bat birmoldatzea, eta leku bat ipintea familiek ume txikiak irakurten egoteko"

azaldu deusaz BEGITURI Ainara Sanchez zinegotziak. Horretarako lekua egokitu dabe. Liburutegi bat dala eta ez ludotekea, azpimarratu gura dau zinegotziak.

Liburutegia sarean sartzeko proiektua

Oin arte liburutegia egon dan lekuan ipini dabe umeentzako liburutegia. Liburuak eta ordenagailuak euki izan ditu liburutegiak baina ez zan erabilten. Eta umeentzakoak erabilera handiagoa izatea espero dabene arren, nagusientzako liburutegia hobetuteko proiektua be badaukiela dino Sanchezek. "Nagusientzako liburuak badagoz eta gure asmoa da liburutegia Bizkaiko sarean sartzea. Orduan ordenagailu bat egongo da eta eskatu ahal izango dira Bizkaiko edozein liburutegitako liburuak. Liburuok helduko dira udaletxera, udaletxetik pasau eta eskatzaileak jasoko ditu. Badago asmoa liburutegi normal bat egiteko baina Artea herri txikia denez ez dago liburuzain bat ipinterik".



UBIDE

Ubidek Memoria ibilbideak emon ditu jakitera panelen bitartez

Ubideko Udalak Memoria ibilbideak seinalizatu ditu, Gerra Zibileko gertakari eta lekuetara hurreratzeko aukerea emoteko, eta gertakari haren barri emoteko, panelak ipini ditu. Ubideko Memoria ibilbideek, 1936ko altxamentu militarra sufridu eben personeren duintasuna eta oroimena berreskuratu gura dabe.



Panela Ubiden.

Erredakzioa

Altxamentu militarren ondoren, gerrako frontea Arabako iparraldean ezarri zan eta Ubide frontearen lehen lerroan geratu zan. Baso eta mendietan antolatu zan defentsa eta espazio horreek bisitetako dagoz diseinuta Memoria-aren ibilbideak. Ubidetik, "Gorrien bidea" pasetan da, Eusko Jaurlaritzek eregi arazo ebana Oketa mendirako sarbidea errazteko.

Udaletxe ondotik urtetan da eta ibilbide zirkularra dauka. Zizkinotik pasau eta Oketaraino ailegetan da.

Memoriaren leku eta berbak
Memoriaren leku eta berbak be jasoten ditue panelok. Lekuen

artean, Aretxagako txaleta dago Estatu Nagusiaren egoitza izan zana. Bertan odol ospitalea egon zan eta hurreko frontean zauritutako ehunka gazte egon ziran han. Kartzelatutakoan memoria be jasoten da: "Gerra ostean, hainbat herritar kartzelatu ebezan. Garai baten, Ubide bizi-arguneren herria zala inoen".

Ubideko gerra egunak be kontetan dira paneletan eta, matxinatutako armadak Ubide okupau ebanean, hilerrian edo kanpoan lurperatutako miliziano gorri-separatisten 108 gorpuren barri be emoten da. Eta gogora ekarten dau CNT del Norte egunkariko Cecilia G. de Guilarte erreportariak, Isaac Puente batailoienaren posizioak bisitau ebazala Ubiden.

ARRATIA, UBIDE

Udalen Mankomunitateak ia 5,8 milioi euroko aurrekontua kudeatuko dau

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) 5.778.781,80 euroko aurrekontua kudeatuko dau. Abenduan onartu zan, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz.

Partidarik garrantzitsuenak gizarte zerbitzuetaoak eta jasangarritasuna eta hondakinen kudeaketarako dira. Holan, gizarte larrialdietarako 237.000 euro dagoz eta etxez etxe-laguntza zerbitzurako 290.000 euro. "Nabarmentzekoak dira, Zerbitzu Zorroan ezarritakoa beteteko sortu diran programak: bazterketea jasateko arriskua daukienei lagun egiteko zerbitzu barria, ekitaldi honetan gehikuntza eukiko dauana, 44.000 euro, eta psikologia-kabinetea, 30.000 euro" azaldu dabe AUMtik. Gazteria programarako 75.000 euroko partidea dago.

Gazteriaren arloko barritasunen artean, Saregileak programea ipiniko da martxan (espazio formaletan eta informaletan esku hartzea) eta jarraipena emongo jako Kale Hezitzaileak proiektuari. Andren eta gizonen arteko bardintasuna sustatzeko 58.000 euro dagoz.

Eskualdean enplegua sustatzeko 100.000 euroko partidea dago eta AUMk, 35.000 euro eukiko dauz desgaitasuna daukien personak gizarteratzeko dirulaguntzetarako, Gorabidegaz lankidetzan, eta Gurutze Gorriagaz batera garatzeko programetan.

Areatzako Udalagaz, Eguneko Arreta Zentro pilotu bat ipini gura da martxan.

Hondakinen kudeaketea eta jasangarritasuna

Aurrekontuko partidarik handiena "Hiri-hondakin solidoen bilketea eta tratamendua" da, 1.259.972

eurokoa. Kamioi barria erosi eta herritarrek eukiontzi marroia gehiago erabilteko sentsibilizazio kanpaina egingo dabe. Beste, 101.958 euroko partidea gorde da, Mankomunitateak aurrekusten daualako arlo horrerik atxikitako persona bat kontratetea, klima-aldaketari eta transizino energetikoari buruzko gaiez arduratuko dana.

Argiteria publikoaren mantentmentua igon da 245.446 eurora arte. Efizientzia energetikorako neurriak ezartzen jarraituko da.

Arratiako Egoitza

AUMk 2.327.897,54 euro bideratuko dauz AUMko erakunde autonomoa dan Dimako adinekoen egoitzara. Egoiliarren laguntzarako (60 plaza egoitzan eta 20 eguneko zentroan), 1.193.000 euro dagoz; animazino psikosozialerako, 52.700 euro; zerbitzu medikurako, 45.000 euro; Eguneko Zentrorako garraio-zerbitzurako, beste 45.000 euro eta fisioterapiarako, 40.000 euro.

EH Bilduk kontrako botoa

EH Bilduk ezezko botoa emon eban, besteak beste, adinekoentzako Eguneko Zentroa ipinteko diru partidarik ez dagoalako. Zentro pilotua Areatzan ipintea ebatzi zan oin dala lau urte eta EH Bilduren arabera, "EAJ-PNV buru dauan Arratiako Udalen Mankomunitatea ez da izan zerbitzua aurrera aterateko gai eta 2023ko aurrekontuetan ez dau diru partidarik, eta ondorioz interesik, aurrekusi" azaldu eban prensa-ohar baten.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

XABIER ARAUZO

"Nire ustea da etorkizunean euskerearen aldeko atxikimendua handituko dala"

Xabier Arauzo Uriartek, Bizkaiko Foru Aldunduko Euskara Zuzendariak, modu baikorren begiratuten deutso euskerearen etorkizunari. Euskereak hobera egin daua eta BFAren lan larroak sendoak dirala uste dau, oin eta etorkizunean euskerearen egoera hobetuteko. Dana dala, sare sozialetan euskerearen presentzia indartutea garrantzia handikotzat jotzen dau.

Usansolon jaio eta Igorren bizi da Xabier Arauzo. Euskal Filologia ikasi eban eta Osakidetzako teknikaria da lanbidez. Euskara Zuzendari karguan, hiru urte pasautxo, oingo legealdia, daroaz.

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria zara, zein da BFAren eginkizuna euskereari jagokonean?

BFAko Euskara Zuzendaritzek arlo bi ditu. Alde batetik lan egiten dogu Aldundia bera euskaldunago izateko. Hau da, lan egiten dogu BFAko Euskara Plana gauzatu daiten; langileen artean eta langile eta herritarren arteko hartu-emona ahalik eta gehiengotan euskeraz izan daiten; prestakuntza emoten dogu eta abar. Hori da hanka bat.

Eta beste hankea da gizarteari begira egiten doguna Bizkaia euskaldunago egiteko; batez be, aisialdian, denpora librean euskaldunagoa izan daiten. Euskaldunago be bai, euskerazko sorkuntzan: bertsolaritza, literatura, musika... Eta bizkaieraren alde eta euskera teknologia barrietan egon daiten be egiten dogu lan. Baita kirolean eta arlo sozioekonomikoan be; hau da, enpresetan eta Lanbide Heziketan. Lan egiten dogu, hezkuntzako prozesua amaitzen danean, enpresetara sartzean diran gure gazteek hizkuntzaren aldetik jarraitutasun bat euki dagien. Horreek dira gure arloak.

Ze aurrekontu dauka euskerarako BFAk?

2023rako daukagun aurrekontua 7,8 milioi eurokoa da.

Bizkaian eta Arratian, euskerearen egoerak, atzen urteotan onera ala okerrera egin daua uste dozu? Eta zeintzuk dira BFAren epe labur eta ertaineko helburuak?

Nire ustez euskerearen egoerak hobera egin dau. Esparru batzuk oso argiak dira: hezkuntza arloan, administrazioan, osasungintzan, interneteko presentzian, wikipe-



dian... Beste esparru batzuetan astiroago goaz, adibidez enpresa arloan, edo kirol arloan. Eta gero beste esparruren baten euskerearen presentzia gura baino txikiagoa da, adibidez, sare sozialetan.

Bizkaiko kale erabilerearen neurketea igaz atera zan eta Bizkaia da, lurraldeen artean, nahiz eta gitxi izan 0,2, erabilera han-

Badagoz esparru batzuk euskerearen presentzia indartu egin behar dana; sare sozialetan, esaterako

ditu dauana. Gainera, Bizkaian daukaguz Euskal Herri osoan euskeraz gehien berba egiten dan eskualdeetako batzuk; adibidez Lea-Artibai da kalean gehien egiten dauan eskualdea, eta Gernikaldea be oso goian dago: bost eskualde euskaldunenetan. Hau da, kale erabilera handiena dituen eskualdeetako bi Bizkaian daukaguz. Ikuspegi horretatik ez

naz pesimistea.

Euskerearen kalidadeagaz be kezkatuta dagoz aditu batzuk.

Nire ustez, hizkuntzearen kalidadearen inguruan, zorrotasuna eta gramatika zuzentasuna moduan ulertuta, itzelezko lana egin da Euskal Herrian. Eta beharbada hartu dogu dogu inertzia bat horri garrantzia handia emotekoa. Nire ustez, lasaitu beharko geunke, hain zorrotzak ez izan eta euskeraz egin. Onartu be egin behar dogu sortuko dirala hizkuntza forma barriak. Beharbada jatorritasun eta gramatikearen zuzentasunaren inguruko oso sentimendu gogorra daukagu. Beharrezkoa zan gramatikearen normalizazioari eta zuzentasunari garrantzia emotea, jakina. Baina nire ustez gaur egun libreago egon behar gara. Horrek ez nau kezkatzen. Oso begira egon gara alde akademikora, akreditaziora, eta hori ez da helburua, helburua erabilpena izan beharko litzateke.

Euskereak presentzia dauka interneten, hezkuntzan, erakundeetan... Argi dago prestigioa irabazi daua, baina ha-ta guzti be, kalean eta familian indarra galdu dau. Mundu globalizau honetan, zein da euskereak bizirauteko hartu beharreko estrategia?

Martxan daukaguz lan larro asko sendoak dira eta gauza askotan lortu dogu konsolidatea euskerearen presentzia. Adibide bat jartzearen, Durangoko Azoka. Urte bi azokea egin barik, zalantza egoan zer gertatuko zan, eta erantzuna oso-oso ona izan da; herritarrek oso ondo erantzun dabe. Nik uste, martxan daukaguz arloetan sakondu egin behar dala eta konsolidau.

Badagoz esparru batzuk euskerearen presentzia indartu egin

behar dana; sare sozialetan, esaterako. Sare sozialetan, euskerazko sorkuntza egoteak garrantzia handia dauka gero konsumoa egon daitezen, eta hori guretzat lan lerro moduan presente eukitea garrantzitsua da. BEGITU moduko proiektu komunikatiboak be oso garrantzitsuak dira bailararen kohesinorako eta euskaldunen komunitatea egonkortzeko.

Nire ustea da etorkizunean euskerearen aldeko atxikimendua handituko dala. Mundu globalizatu baten gagoz bai, baina gizakiok behar dogu talde bateko partaide sentidu eta nire ustez euskereak jokatu ahal dau rol hori; komunitate baten parte izaten sentiduten lagundutakoa, eta gure komunitadetik mundu globalizatu ulertuteko balio dauana. Hori izango litzateke gure etorkizuna.

Arratian zeintzuk dira euskerearen indarguneak? Zein eus-

kereari eusteko daukan "azpiegitura"? Azaldu apur bat.

Arratian euskereak indargune asko dauka. Bata, atxikimendua. Pentsamentu orokorra euskerearen aldekoa da. Udaletxe guztietan dagoz talde abertzaleak eta hori nahiko adierazgarria da.

Horrezaz aparte, gaitasuna eta ezagutza be handiak dira. Eta tokiko bariante bat dauka: arratierea, bizirik dagoana, eta horrek laguntzen dau hizkuntza funzino asko beteten. Hori indargune inportantea da.

Gero azpiegiturearen aldetik, bereizten badogu formala eta ez formala, azpiegitura formala zabala da: hezkuntza, ikasketak... hezkuntza indargune bat da. Udalen aldeko jarkerea (eta jarduerak) be bai; baita Errota Fundazioa. Fundazioak badauka eusGara proiektua, BFAk diruz lagunduten dauana. Euskaltegia be

badauka... Eta gero ez formalak be badaukaguz; tartean, BEGITU. Arratia mailako komunikabide inportantea da BEGITU; euskaldunen komunitatea trinkotzeko balio dauana. Eta hori be BFAk babesten dau. Bertsozale alkar-tea be badaukagu eta euskera alkar-teak be badagoz. Azpiegitura handia eta indargune asko ditu euskereak Arratian.

Korrika, Euskaraldia, Euskerearen Eguna... euskereak badaukaz hainbat egun edo ekimen, komunitate egiten lagunduten dabenak. Zelan sendotu daiteke euskaldunen komunitatea euskaldunak ez diranakaz be komunitate eginez?

Gizarte eleanitz baten gagoz eta etorkizuna hortik doa. Atzeritarren porzentajea ehuneko hamarretik gorakoa da eta ka-lean, alkarriketen %3 atzerriko



hizkuntzetan da. Testuinguru horretan euskereak badauka rol bat eta da zubi hizkuntza izatea. Aukerea dauka komunitatea sortzeko eta trinkotzeko, euskereak bertoko sentidu arazoteko gaitasuna daukalako.

Agazko zemendiaren 24an, BFAk egin ebazan lehenengoz Euskalgintza topaketak. Bizkaiko euskalgintza osoa deitu genduan, 100 entidatetik gora. Lehenengoz eta alkarlanean, etorkizuneko erronkei zelan erantzun jakiteko, eta danon artean egiteko indarren batura bat, eta erispideak koordinetako, egin ziran topaketok. Asmoa dauka 2023an be topaketa horreez jarraituteko, erronkei danon artean erantzun komun bat emoteko.

Euskerearen inguruko gizarte mobimentuak, momentu onean ala txarrean dagoz? Ze hartu-emon dauka Foru Aldundiak honekaz?

Bizkaian alkarregintza, modu orokorrean ulertuta, oso sendoa izan da. Adibidez, kirol arloan bizikleta proba bat antolatu behar bazan herri osoa biltzean zan, edo abesbatzetan, edo kirol entrenatzaile... jente asko egon da alkarlanean, mosutruk, herriaren alde lanean. Baita gizarte arloko entidateetan be, arazoak dituen personei lagunduteko.

Hori oso errotuta egon da Bizkaian. Baina uste dot, gizarte aldatzen dagoala eta ez dakit hori holan izango dan aurrerantzean. Euskera alkarreetan gertatu ahal dana, horregaz lotuta dago, ez da

desbardina. Dana dala, euskera alkarreei jagokienez, badakigu eskualde euskaldunenetan dagozala batez be. Eta zonalde ez euskaldun edo ez hain euskaldunetan gitxiago dagozala. Ezkerraldean, esate baterako, euskerearen alkar-teen kopurua txikiagoa da. Korrelazio bat dago.

Guk alkar-teakaz hartu-emon handia dauka. 7,8 milioiko aurrekontutik, 3,8 milioi bideratzen doguz alkar-teetara; helburuen artean euskerea sustatzea daukien irabazi asmo bako alkar-teetara, hain zuzen be. Milioi bat dauka dirulaguntza deialdietan bananduten dana eta beste 2,8 milioi bananduten dira euskerazko eragileen artean. Dirulaguntza zuzenak dira batzuk, adibidez, Bertsozale Elkarteari, Topaguneari, Lanekiri, (Lanbide Heziketan euskerea sustatzeko entidatea), Gerediagari eta beste batzuei emoten jakiena. Arratian adibidez Errota Fundazioak eta Euskal Idazleen Elkarteak ditue zuzeneko dirulaguntzak Bizkaian euskerea sustatzeko aktibidadeak diruz laguntzeko. Hartu-emonak estua da eta dotazino ekonomikoa handia.

Zelan dagoz Bizkaia eta Arratia hizkuntza eskubideei jagokienean? Zeintzuk dira sarrien gertatzen diran urraketak?

Egia esan, oso gitxi dira jasoten doguzan kekak. Azken hiru urteetan, 10 kexa inguru jaso izan dira urtean. Edozelan be guk egiten dogu kexen tramitazioa eta ahalaginduten gara kekak sortzean dituen egoerak konponduten.

94 673 09 35 cmtkarmengo@karmengoama.eus

Ate irekiak: 

School tour: 

● Matrikulazioa

0-1 urte → zabalik urte osoan zehar

2 urtetik aurrera → otsailaren 13tik 24ra arte

● Ate irekiak

Otsailaren 11n, 10:00etan

KARMENGO AMA
ikastetxea

PELOTEA

Irabazten hasi dau Amaia Aldaik Bizkaia Txapelketea

Nora Mendizabalegaz batera jokaturten dabil Amaia Aldai pelotari dimoztarra hasibari dan andrazkoen Bizkaia Txapelketearen bosgarren edizinoa. Lehen jardunaldian, hilaren 13an Bilbon, Madalen Etxegarai eta Enara Gaminderen kontra neurtu ziran eta dimoztarraren bikoteak irabazi eban aurrez aurrekoa, 22-14.



Bizkaia Txapelketako pelotariak.

Erredakzioa

Aldai eta Mendizabal galtzean hasi ziran, 4-7, baina zazpita bardindutea lortu ostean, partidua jabe egin ziran. Holan, tantuz tantu aldea handituten hasi ziran Aldaik hogeta bigarren tantua irabazi eban arte, aurkariak hamalagaz itxita. Oin, ligaxka faseko beste bi jardunaldi jokatu beharko ditue.

Urtilaren 20an izango da bigarren jardunaldia Bizkaia frontoian eta hirugarrena hilaren 28an, Zallan. Partidua beste bikoteen kontra neurtuko dira: Olatz Arrizabalaga eta Uxue Osés, zein Leire Garai eta Andrea Capellan. Bikote onenek jokatu dabe zezeilaren

10ean Bilbon jokatu dan final handia. Hasikerako partiduak Bizkaia frontoian Facebookean ikusi daitezke eta finala ETBn emongo da, zuzenean.

Klubn arteko txapelketea

Bizkaia Txapelketeaz gainera, Amaia Aldaik Euskal Herriko Ezker Hormako Klubn Arteko Txapelketea be jokatu dau hileon. Txapelketa honetan Enara Gaminde izango dau lagun, ligaxkako bost jardunaldiei aurre egin eta finalera ailegetako helburuagaz. Lehen partiduan, Leire Garai eta Nora Mendizabaleri egin eutseen aurre hilaren 14an eta 22-12 irabazi eban.

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

1.023 JARRAITZAILE
339 JARRAITZAILE
2.331 LAGUN

MENDIA

Zabaldu da Ubide Trail lasterketan parte hartzeako izen-emotea

Ubide Trailen bigarren edizinoa maiatzaren 27an jokatu da "Ubiden mundu bat daukatzue zain" lelopean.

Erredakzioa

Lasterketeak 28 kilometro eta 2.000 metroko desnibela dauka. Izena kronoak.com webgunean emon daiteke, parte-hartzaileentzat dagozan 300 dorsalak amaitu arte.

Igazko lehenengo edizinoa sano arrakastatsua izan zan arren, bigarren honetan, hobetuteko aldaketaxo batzuk egin dabez antolatzaileek. Holan, urrietan izan beharrean, maiatzera pasau da, urrietan "Gorbeian egongo dan proba kopurua ikusita", "jasangarritasunaren aldeko konpromisoagaitik". Ibilbidea be apur bat aldatu da eta lasterketea gogorragoa da aurten: 27 kilometro eta 1.700 metroko desnibela eukazan igaz lasterketeak eta 28 kilometro eta 2.000 metroko desnibela daukaz aurten. Atzenik, umeentzako "Ubide Trail" bat egiteko asmoa be agertu dabe.



ERRUGBIA

Gaztedi garaitu eban zekorrek San Txismen jokaturako atzen partiduan

Urtilaren 7an jokatu eban Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek taldeak urteko lehen partidua, Gaztedi talde gasteztarraren kontra, eta 20-13 irabazi eban etxeok.

Erredakzioa

Holan, ligea amaituteko sei partidu falta diranean, estututen doa sailkapena. Partidu gehienak galdu ostean, lortu dabe sailkapenean aurrera egiteko burrukan sartutea.

Ekaitz Duñabeitia entrena-tzaileak azaldu dauanez, partidu "ona" jokatu eban arratiarrek, batez be defensas: "Gogor egin genduan defensas, eurak eraso indartsuak egiten ebezan eta; ekipo gogorra da". Partidu galtzean hasi eban, 3-8 hogeigarren minutuan, baina Iñigo Galleterok hiru entsegu egin ebezan lehen zatia amaitu orduko eta Mikel Gonzalezek bat eraldatu. Holan, lasaiago jokatu eban bigarren zatia, aurkariak entsegu bat lortu baeben be.

Sailkapena estu

Zortzi talde dira Euskal Ligako Gizonezkoen Ohorezko B Mailan eta arratiarrak seigarren doaz,



Arratiko Zekorrek partidua irabazi ostean.

baina aurrera egiteko aukerakaz. Izan be, taula erdikaldean dagozan bost taldeen artean hiru puntuko aldea baino ez dago. Gaztedik bi puntu gehiago daukaz

eta Nerbioik zein Zarautz/Beltzak taldeek hiru gehiago. Atzen honen kontra jokatu dabe zekorrek hurrengo jardunaldia, hilaren 22an Zarautzen.

MENDIA

Txikonek Manasluko tontorra zapaldu dau neguan

Alex Txikonek eta bere sei espedizinokide nepaldarrek egin dabe Manaslura (8.163 metro) neguan egin dan lehenengo igoera. Arau barriakaz, historian lehenengoa aldia izan da Manaslura espedizino bat neguan eta oxigeno artifizial barik igoten dana.

Urtailaren 7an, 04:30ean (Nepalen 09:30ean) zapaldu eban tontorra alpinista lemoaztarrak Pasang Nurbu Sherpa, Chhapel Sherpa, Gelu Sherpa, Maila Sherpa, Mantere Lama Sherpa eta Gamje Babu Sherpagaz batera.

Erredakzinoa

Hango, 18:00etan heldu ziran Beheko Kanpamentura, gailurrera eta bueltea 60 ordu baino gitxia-goan eginda. Bere ibilbide profesionaleko "esperientziarik zorrotz

eta gogorrenetakoa" izan dala dino Txikonek. "Igoera oso gogorra izan da, oso zorrotza eta arriskutsua, izugarriko sendotasun fisiko eta mentala eskatu deuskuna. Mendia uste baino askoz zailagoa eta egoera txarragoan egoan"

adierazo eban Katmandun. Izan be, tontorra zapaldu eta egun bi geroago, Txikon helikopteroz joan zan Katmandura igoera gogor eta azkarrak eragindako makaltasuna sendatzeko. Neguko bere bigarren zortzimilakoa izan da.

Muturreko hotza eta haize zakarra

Muturreko hotza, izotza eta haize zakarra izan ebezan lagun espedizinokoe ibilbide osoan. Tenperaturak -45º-eraino jaitsi ziran, eta haize boladak orduko 50 km-raino heldu ziran. "Gatxa da jentek baldintza horreek zer suposatzen daben jakitea. Gure bularraren eta luma-jantziaren artean geunkazan kantiploretako ura izoztu egin jakun. Inoz ez jaku holangorik gertatu" azaldu eban Txikonek.

Urtailaren 4an hasi zan dana, goizeko 08:00etan. "Eguraldi ona egoan, girotuta gengoan eta altuera irabazteko aukera ona geunkala sentiduten genduan". Lehenengo zatian, mendiak aurreikusitako zailtasunak izan ebazan, baina ez eban arazo handirik izan horreek konponduteko. Hurrengo tartea, ostera, C2ra helduteko egin ebena, "bizitzan egin dodan gatxentako bat izan zan, duda barik. Oso gogorra eta korapilatsua izan zan. Oso arriskutsu egoan, egia esan. Bildurra pasau genduan".

Kanpatu eta gaua egin eben, eta urtailaren 5ean C3ra abiatu ziran (6.950 metro). Simone

Moro espedizinokidea, Bigarren Kanpamentutik Beheko Kanpamentura jaitsi zan bera bakarrik, igoten jarraitzeko indarra euki arren, jaisteko orduan taldea oztopatu eikeala uste ebalako. "C3ra heldutakoan, jarraitu beharreko estrategia pentsau genduan, ea hobe zan atsedean gehiago hartzea edo gailurrari erasotea. Baina han gengoan eta aukerea geunkan. Aprobetxau beharra egoan. Ez genduan begirik bildu, eta gaueko 23:00etan gailurrera abiatu ginan eta bertara heldu ginen 9:30ean. Pinakularen parean (7.992 metro), gailur nagusira heldu aurreko azken zatian, egunez egin jakun. Azken zati hau oso luzea egin jakun. Bairudian ez zala inoz amaitzen... Espedizino komertzialak geratzen ziran lekua ikusi genduan, baina igoerearen aurreko argazkiak aztertuta jakin genduan benetako tontorra aurrerago egoala. Ibilaldi txiki bat egin genduan eta taldeko kide guztiak heldu ginan gailurrera. Gero, apurka-apurka jaisten hasi ginan, eta hori zan, duda barik, errokearen gauzarik gatxena" azaldu eban Txikonek.



FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia A lidertzan

Arratia A taldeak lidertzan segiduten dau atzen partidua etxetik kanpo irabazi ostean. Andrazkoetan Arratia Ak Real Sociedad liderraren kontra galdu eban Urbietan eta B taldeak irabazi etxetik kanpo. Lemoako Harrobik irabazi egin eban etxetik kanpo eta gizonezkoen Arratia Bk ostera bardindu.

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia A

Urteko lehen partidua galdu baeban be, urtailaren 14an etxetik kanpo Apurtuareren kontra jokatutakoa irabazi egin eban Igorreko taldeak, 0-2. Hamasei jardunaldiren ostean Arratia Ak lidertzan segiduten dau 34 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Basconia B taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 17:45ean.

Gizonezkoen Arratia B

Urtailaren 15ean etxetik kanpo jokatuko eban Arratia B taldeak Ezkurdi Aren kontra eta bana bardindu eban. Hamasei jardunaldiren ostean 22 puntu ditu Arratia Bk eta taularen erdikaldean dago. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Ugao taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 15:30ean.

Andrazkoen Arratia A

Arratia A taldeak urtailaren 14an jokatuko eban ligako partidua lider-

tzan dagoan Real Sociedad B taldearen kontra eta 0-5 galdu eban etxean. Hamabost jardunaldiren ostean 16 taldeko ligan hamahirugarren postuan dago Arratiako taldea 14 puntugaz. Datorren partidua be Urbietan jokatuko dau urtailaren 22an, goizeko 11:15ean U.D. Logroñes taldearen kontra.

Andrazkoen Arratia B

Arratia Bk urtailaren 15ean jokatuko eban etxetik kanpo Bizkerre C taldearen kontra eta 0-2 irabazi



Gizonezkoen Arratia B eta Amorebieta Bren arteko partidua Urbietan.

eban. 14 jardunaldiren ostean Arratia B seigarren postuan dago 22 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Arratia Bk Ibaiondo Nerbioi Erreka A taldearen kontra hilaren 21ean, gaueko 20:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik urtailaren

15ean jokatuko eban etxetik kanpo Ugao taldearen kontra eta 1-2 irabazi eban bolada txarrari amaiera emonda. Lemoako Harrobi seigarren postuan dago hamalau jardunaldi jokatuko ostean 30 puntugaz. Datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau Lemoako taldeak Mungia A liderraren kontra hilaren 21ean, 17:30ean.

IRAKURLEEN TXOKOA

Nerea Ibarzabal bertsolariaren lehenengo eleberria landuko dabe Artean

Erredakzioa

Susa argitaletxeak igaz kaleratutako Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* nobela izango dabe berbaari Arteako Irakurleen Txokokoek urtailaren 20an, 19:00etan, Kultur Etxean. Xabier Mendigurenek gidatuko dau liburuaren gaineko solasaldia.

"Mundu bat kabitzen da Gloria tabernako azulejo gorri eta gainazal koipetsuen artean, eta denporearen ate desbardineta-tik sartuko da irakurlea bertara kontakizun honetan. Jentea da haren zimendu, eta konplizitate unek, isildutako bortxamarkak, lanordu konpartiduek zein alkarriketa tarteka mutuek epeldu bezala erreko ditue habe horreek, beste batzuk eregiteko, akaso. Iragan hurre baten ber-

bazko filmatze bat dakar Nerea Ibarzabal Salegiren estreinako nobeleak" dinoe Susa argitaletxeok euren webgunean.



IKUSKIZUNA

Ume txikiarentzako Azalerako ipuinak ikuskizuna egongo da Igorreko Kultur Etxean



Erredakzioa

Hegoa lantaldeak, *Azalerako ipuinak* ikuskizuna eskainiko dau urtailaren 20an, 17:30ean, Igorreko Kultur Etxean. 0 eta 3 urte bitarteko ume eta eurakaz dagozan nagusientzat da eta formatu txikian egingo da. Jentek, saio baterako baino gehiagorako izena emon ezkerro, saio gehiago antolatuko dira, 17:30ean egingo dan saioaren ostean.

Azalerako ipuinak lanak ahozko tradizionetik eta haur literaturatik jasotako kantu, olerki, berba-joko eta ipuin laburrak biltzean ditu, musika eta soinu tresnakaz lagunduta. Ahozkotatuna barneratzea eta musikeagaz gozatu

arazotea dauka helburu.

Euskal tradizioan oinarritutako musikea

2016an Saroa Bikandi eta Peru Madalena alkartu, eta Hegoak lantaldea sortu eben.

Azalerako ipuinak proiektuari egonkortasuna emoteko taillerretan landuten ziran materialek euskarri bat behar ebela pentsau eben. Hori dala-ta, Etxegioren audio literatura ekoiztetxeagaz batu eta Maria Uriarte eta Tomas FJuanesegaz alkarlanean ekoiztu eben CD bat 2019an, Quico Pugesen musikeagaz. Diskoa euskal tradizionetik eta literaturatik datozan berba-joko, ipuin, kantu eta olerkien bilduma bat da.

JARDUNALDIA

Sorginen gaineko jardunaldia antolatu dau Arteako Herriko Bentak



Erredakzioa

Ipuinetako sorgin eta mitotik harago, ikuspuntu historiko eta feministatik landuko da *Zer gertatu da sorginekin?* izenburupean, historian isildu edo desitxuratutako gai hau urtailaren 21ean, zapatua, Arteako Herriko Bentan. Berbal-diak, bazkariak, film laburrek eta mahai-inguruak osotuten dabe eguneko egitaraua.

Goizeko 11:00etan, hasiko da Amaia Nausia Pimoulier historialaria *Sorginak deseraiki emakumeak askatzeko. Sorgin-ehiza Euskal Herrian XVI. eta XVII. Mendean* berbal-diagaz.

Amaia Nausia Pimoulier (Iruñea,

1982) Historian doktorea da eta Eusko Ikaskuntzako egitasmoen arduraduna. Hainbat komunikabidetan kolaboretan dau; Berrian eta Garan, besteak beste. *¿Virgenes o putas? Más de 500 años de adoctrinamiento femenino* (Txalaparta, 2020) eta *Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: una historia de resistencia femenina* (Txalaparta, 2022) liburuak kaleratu ditu, besteak beste.

Entzundakoa komentau eta giroari eusteko aukerea egongo da bazkarian. 14:30ean izango da baba jana eta horretarako erreserba egin behar da Herriko Bentako telefonoan.

Bazkalostean, 16:30ean, gaiaren inguruko film laburrak proiektatuko dira eta ostean solasaldia egongo da. Hizlariak, Leire San Martin Marcos, Juainas Paul Arzak eta Orreaga Zubeldia Apaolaza izango dira. Juainas Paul Arzakek, *Sorginkeriarena gurean* (Pamiela, 2022) saiakerea idatzi dau. Bertan, oinarri bibliografiko oparoan oinarrituta sorginkeriaren irakurketa barri bat eskaintzen dau.

Egun osoan zehar, gaiari lotutako irudi edo animazio proiektzioak egongo dira, *Hustuz bete* bideo *mapping*-aren emonaldiak, hain zuzen be. Lan honen egileak, Irene Zarranz Pagola eta Xabier E. Goñi "Ixarte" dira.

ZINUEMA

Gabi, 8 urtetik 13 urtera film suediarra eta Go!azenen aurre-estreinialdia Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Zinuema programearen barruan, hilaren 22an, 19:30ean, Engeli Broberg zuzendariaren *Gabi, 8 urtetik 13 urtera* film suediarra euskeraz, eta 29an, 17:00etan, *Go!azen 9.0* atzen kapituluaren aurre-estreinialdia ikusi ahal izango dira Igorreko Lasarte Aretoan.

Gabi dokumentalak ume baten bizitzako bost urteren barri emoten dau. "Gabi Gabi izan gura dau. Desira horrek erraza dirudi, baina ez da. Gabi desbardin sentiduten da. Nahiz eta bere bizitzako 8 urteetan inoz ez dauan arazorik izan gauzak argi esateko. Baina familia herri txiki batera joan eta pubertarora iristen danean, gauzak aldatzen hasten dira" sinposiaren arabe-

ra. Filmak, genero eta arauen gaineko aurrerretxiak kolokan ipini eta norbera izateko eta norberaren itxurea izateko eskubi-deak azpimarratzen ditu.

Go!azen

Go!azen telesailaren bederatzigarren denporaldiko atzen kapituluaren aurre-estreinialdia be ikusi ahal izango da Lasarte Aretoan. *Go!azen* ETB 1eko telesail musikala da, Pausoka Entertainment ekoiztetxeak eta EITBk ekoizten dabe. Fikzino honek udaleku zorrotz batean euskaldun gazteen talde baten ibilerak kontetan ditu. 2008an sortu zan EITBko film musikal bat bezala, *Go!azen* izenburupean. Filmaren arrakastearen ondorioz, ETBk 2009an *Go!azen 2.0* telesaila sortu eban, eta bertan pelikulako

BAKARRIZKETE

Zuhaitz Gurrutxagaren FutbolisTOK bakarrizketea Diman

Erredakzioa

Urtailaren 26an, 19:00etan, ikusi ahal izango da eskolako karmaran Zuhaitz Gurrutxagaren bakarkako lan hau. Saioa ikusi ahal izateko izena emon behar da kultura.dima@bizkaia.org helbidean edo 621 184 503 telefonon. Izena emon ez dabenak aforoa bete arte sartu ahal izango dira. Gurrutxaga Herri txiki infernu handi ETBko saioaren aurkezleeta bat eta futbolari izandakoa da, beste talde batzuen artean Lemoan jokaturakoa.

FutbolisTOK ikuskizunean, Futbolista baten konfidentziak bere lehen bakarrizketako lanetik hainbat pasarte berreskuratu ditu, eta atzen hamarkada bietan, goi mailako futboleant, umoregintzan, telebistan, antzerkian eta musika munduan bizi izan dituan hainbat esperientzia kontatuko ditu. Umorea erabiliz, eguneroko bizipenak eta gorabeherak erlatibizatu eta nor bere buruaz barre egitea bilatzen dau. Era berean, jentaurrean, TOC edo nahasmentu obsesibo-kompulsiboa izeneko gaixotasunaz berba egiten dau, lehen mailako futbolari bihurtu zanetik lehen personan sufridutea tokau jakon-eta.



personaia gehienek hartu eben parte. Urteak pasau eta gero, 2016an telesaila berreskuratu eben eta urteotan, bederatzigarren denporaldi egon dabe.

BERTSO-SAIOA

Colina, Gaztelumendi, Iguaran, Iturriaga, Martin eta Mendiluze Zeanuriko bertso-saioan

Erredakzioa

Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Aitor Mendiluze izango dira Zeanuriko bertso-saioko aurtengo bertsolariak.

Urtilaren 29an, 18:00etan izango da frontoian eta gai-emoile beharretan Eñaut Intxaurreagak jardungo dau.

Urtilero legez, hemeretzigarrenez, momentuko bertsolaririk onenetakoak izango dira Zeanuriko frontoian. Euretako lauk, Sustrai Colinak, Beñat Gaztelumendik, Alaia Martinek eta Aitor Mendiluzek, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala jokatu eben pasau dan abenduan. Barriro euren bertsoakaz

gozatuteko aukerea egongo da Zeanuriko frontoian. Oihana Iguaran finalaurrekora heldu zan eta Iruñean egon ez arren, bere maila erakutsi eban txapelketan zehar. Unai Iturriagak barriz, aspaldi itxi eutsan bertso txapelketetan parte hartzeari, baina ez deutso huts egiten Zeanuriko saioari eta, urtero lez, aurten be bere etorriaz, sormenaz eta ironiaz gozatuteko aukerea izango dabe hurreratzen diran bertsozaleek. Hutsik be ez dau egingo, bertso-saio honetako beste klasiko batek; Eñaut Intxaurreaga gai-emoile lanetan. Intxaurreaga, Zeanuriko Bertso Eskolako irakaslea da.

Sarrerak egun berean frontoian egongo dira salgai 17:00etatik aurrera.



LIBURUA

Nor hil zuen egiazki Blasida Pujana? nobela grafikoa aurkeztuko dabe Igor Estankona eta Maite Yurrebaso egileek Igorren

Urtilaren 27an, gaueko 20:00etan izango da liburuaren aurkezpena Igorreko Kultur Etxean.

Erredakzioa

Igorreko memoria historikoa berreskuratzeko lanen barruan, Maite Yurrebaso Igorreko irudigileak eta Igor Estankona Arteako idazleak Blasidaren historian oinarritutako komiki edo nobela grafikoa egiteko enkargua jaso eben Igorreko Udaletik. Lana, 2018an amaituta egoan arren, ez da salgai egon, Udalak, 1937ko bonbardaketearen urteurrenean egitekoak ziran ekitaldietan opari moduan emoteko planteau ebalako komikia. Egileek zelan izan zan lanketa prozesua eta ze laguntza euki eben Arratiako historialarien aldetik kontauko dabe Igorren. Baita testuingurua emon Blasida Pujanaren heriotzeari be.

Igorreko 1937ko bonbardaketan hil zan Blasida Pujana. Blasida ez zan persona berezia: Bargondiakoa zan eta Igorren krida egoan, 15 urte gaz faxistek,



airetik metrailauta hil ebenean. Horregaitik aukeratu eban Estankonak, ez zalako berezia, hain zuzen be. "Blasida Pujana atxakia bat da, ze Arratian egon ziran hildako asko Gerra Zibilean, baina bera erabili genduan bitarteko moduan azaltzeko sasoi istilutsu ha" azaldu deutso BEGITURI Estankonak.

IPUINAK

Nerabe eta helduentzako ipuin kontaketea Lemoan

Erredakzioa

Urtilaren 25ean, 18:30ean, Nagore Leon eta Itziar Saenzek *Itsaspetik azalera, azaletik plazara* izenpeko ipuin kontaketea dakarre Kotxepin Kultur Etxera.

Kontaketa saio honetan, poesia, ipuinak, istorioak eta kantuak tartekatzen dira, sasoi bateko andren bizimodu eta bizipenak azaleratuteko. Kostaldeko herrietan, olatuen joan-etorriak ekarten ditu bizibidea eta heriotzea; poza eta tristurea; maitasuna eta gorrotoa... eta aspaldiko kontu eta kantu zaharrak.

Mendeetan zehar kresalak jente-artean azalean itxitako aztarnak bildu eta plazaratuko ditue kontalariak: askatasun eza, derrigortutako ezkontzak, maitasun ukatuak eta andra izate hutsagaitik ezarritako rol derrigortuak. Hau guztiau, sare joste lanetan dabilzan andra indartsu eta umoretsu biren ahotsetatik. "Historian zehar isilpean gelditu diran pasarteak ekarriko doguz oholtzara, sasoi bateko kostaldeko jentearen patua agirian itxeko. Protagonista biek istorio desbardinak josteaz gainera, norbere kontareta eta euskalkiaren bitartez saretzen dabe kontaketa saioa" dinoe kontalariak.

DUNBA

Olentzero eta Mari Domingi Lemoara etorri dira

2022ko abenduaren 23an, Gabonei hasikerea emoteko, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleak herriko udaletxera joan ginan eskolan jantzan egin eta abestu ondoren.

6. mailako ikasleak

6. mailakoek Olentzero eta Mari Domingi sorbaldan eroan genduzan eta gure atzetik 5. mailakoak eta 4. mailakoak etorri ziran ume txikiak eskutik hartuta.

Udaletxera heldu ginanean, neska-mutil batzuek Olentzero eta Mari Domingi udaletxeko


balkoira igon genduzan. Olentzero eta Mari Domingi eroan genduzan artean aho batez onartu genduan oso esperientzia ona eta ahaztezina izan zala.

Gitxi gorabehera, 300 ikasle izan ginan joandakoak. Udaletxean, bertako langileez gain, ikasleen guraso batzuk be egon ziran eta barriro be jantzan egin eta abestu genduan.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefona: 94 631 60 22.

FURGONETEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruertarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

ETXEA GARBITUTEKO LAN ESKAINTZEA

Dimako pisu txiki bat garbituteko persona baten bila gabiz. Interesdunek bazagoz mesedez ipini hartu-emonetan geugaz telefono honetara idatzita edo deituta: 685 766 578 eta 675 009 872.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Alvaro Rabelli eta Jose Carlos Torreren **Frantziako Dama liburu bana.**

Esti Izagirre (Igorre)
Maitane Diez (Areatza)



2

Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Enperadorearen kondaira itzal antzezlanerako.**

Roberto Salazar (Igorre)
Gaizka Agirre (Artea)




begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus





A main poster for 'ikastola'. The top part features the word 'ikastola' in a large, stylized font with 'i' in blue, 'k' in green, and 'stola' in black. Below it, the word 'zu?' is written in colorful, hand-drawn letters. The central image shows a smiling woman with glasses and two children (a girl and a boy) wearing white t-shirts with colorful, abstract drawings. The bottom section is a dark blue banner with white text: 'ANDRAMARI' in large letters, 'ZORNOTZAKO IKASTOLA' below it, 'ATEAK ZABALTZEKO EGUNA' in a larger font, the date '2023/01/28', the time '11:00', and the phrase 'EMAN IZENA!'. A QR code is located in the bottom right corner of the blue banner.